32.2.2 Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako baldintza bereziak: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 22.1. artikuluaren arabera, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremu espezifikoan irizpide sozialak txertatzeko nahitaezko eta zeharkako betebeharrari buruzko printzipio orokorra aplikatuko dute euskal botere publikoek. Horretarako, kontratazio publikoan genero-ikuspegia txertatu beharko dute, eta, beste neurri batzuen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak sartuko dituzte esleipen-irizpideen eta gauzatzeko baldintza berezien artean, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken apartatuan aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeen egoera. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada kontratuaren xedeak ez duela zerikusirik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, kontratu-prestazioak ez duelako eraginik emakumeen eta gizonen egoeran, eta ezin delako horrelako klausularik txertatu, kontratazio publikoaren arloko oinarrizko araudiarekin bat etorriz.

32.3 Lote bietarako, Next Generation funtsei buruzko gainerako baldintza berezi hauek ere:

Egiten diren jarduera guztietan, ingurumen-araudi nazionala eta EBkoa errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin ebaluazio batzuk ere.

BEEPan jasotako egikaritze-neurriek ezin diete kalte esanguratsurik egin ingurumen-arloko sei helburuei:
1. Klima-aldaketa arintzea;
2. Klima-aldaketara moldatzea;
3. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa;
4. ekonomia zirkularrerantz trantsizioa egitea;
5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola;
6. biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzea.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek Europar Batasuneko eta Estatuko ingurumen- arloko araudia betetzen dela bermatuko dute, (2021/C58/01) Gida Teknikoko «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren (do no significant harm-DNSH printzipioa) arabera. Era berean, kontratu honen xede den jardueraren bat edo guztia azpikontratatuz gero, erakunde esleipendunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildotik.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

«Kalte esanguratsurik ez eragitea» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa (EO C 58, 2021.02.18koa, 1. or.) erabat betetzen dela bermatzeko, honako jarduera hauek baztertzen dira: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien geroko erabilera barne; ii) EBko isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, eragingo dituzten berotegi efektuko gasen emisioak erreferentziazko parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten dutenekin lotuta; iii) hondakinen zabortegiekin, errausteGiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak, DNSH ebaluazioa negatiboa den jarduerez gain.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, DNSH printzipiora egokitzearen aldeko ebaluazioaren bidez, edo, hala badagokio, printzipio hori betetzen dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, I. ERANSKINAren arabera. Nolanahi ere, erakunde esleipenduna erakunde kontratatzaileak «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela ziurtatzeko hartzen dituen egiaztapen-mekanismoen eta neurri zuzentzaileen mende egongo da.

Printzipio hori errespetatzeko betebehar orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen DNSH baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. BEEPeko 14. osagaiaren 1. inbertsioaren 8. atalean ezartzen denaren arabera, birgaitzea, ekipamenduak eta azpiegiturak eskatzen dituzten jarduketetan, DNSHko honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

1. Klima-aldaketa arintzea.
Eraikinak birgaitzean, kontuan hartuko dira eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak, ia energia kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, energia primario berriztaezinaren kontsumoa nabarmen murrizteko.

2. Klima-aldaketara moldatzea. Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara moldatu ahalko dira; horretarako, lehendik dauden eraikinek ahalbidetzen dituzten aukeren arabera egokitzapen-irtenbideak hartuko dira eta eraikinak eraikin babestuak badira, babestu egingo dira, hala nola landare-estalkiak, eguzki-oihalak eta itzal-zonak erabiliz.

3. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa. Ez da uste neurria kaltegarria izango denik baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarrirako eta babeserako. Neurriaren helburua da turismo-helmugak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara hobeto egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea, bereziki itsasokoak. Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasuneko produktu- etiketaren bat izango

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

dute. Obraren eragina saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa saihestearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta landuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan baten arabera. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea aurreikusi da, IEE Zuzentarauaren arabera, eta proiektu bakoitza diseinatzean baliabide hidrikoak modu jasangarrian erabiltzeko beharrezkoak diren arintze neurri guztiak identifikatu eta islatu dira.

4. Ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne. (I)Inbertsio honetan aurreikusitako jarduketetan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez- arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Hondakinen Europako Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, betelanak barne, beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz. (II) Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortutako hondakinak mugatuko dituzte, EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera eta erabil daitezkeen teknikarik onenak kontuan hartuta. Eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko; horretarako, materialak gaika ezabatuko dituzte, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz.
(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna lagunduko dute ISO 20887 arauari dagokionez, eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko eta nola dauden diseinatuta ebaluatzeko, baliabideen erabileran efizienteagoak eta moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
Ez da espero neurriak atmosferara, uretara edo lurzorura egindako emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, turismoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo da, IEEren Zuzentarauaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudi nazionalaren arabera, eta, proiektu bakoitza diseinatzean, lurzoruaren eta uraren kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta jasoko dira. Energia fosilak erabiltzen dituzten berokuntza eta hozte-sistemen ordez kutsatzen ez duten teknologiak ezartzera bideratutako jarduketen izaera orokorrak aireko emisioak nabarmen murriztea eta, ondorioz, osasun publikoa hobetzea ahalbidetuko du. Eraikinen birgaitzea sustatzeari dagokionez xedatutako jarduketen izaera orokorrak, energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne, argi eta garbi aurreikusten du kutsatzaile atmosferikoen emisioak murriztuko direla, batez ere energia-kontsumoa murriztearen ondorioz.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Eraikuntzan erabiliko diren eraikuntza-osagaiek eta -materialek ez dute amiantoa edo substantzia oso kezkagarririk izango, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendaren bidez identifikatuta. Eraikuntzan erabiltzen diren eta erabiltzaileekin kontaktuan egon daitezkeen eraikuntzako osagai eta materialek 0,06 mg formaldehido baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m³ bakoitzeko, eta 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunkor kantzerigenoen 0,001 mg baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m³ bakoitzeko, CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 edo bestelako froga-metodo estandarizatuen bidez eta konparagarriak diren zehaztapen-metodoekin bat etorriz frogatu ondoren. Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri horri lotutako jarduketak egingo dira, betiere lurzoruak eta ura kutsatzeko arriskua dela-eta indarrean dagoen araudia betez.

6. Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.
Neurriak ez du ondorio kaltegarririk izango biodibertsitatean eta ekosistemetan, natura-, itsaso- eta lur- inguruneak babestuko dituelako, Espainiako turismo politikaren elementu bereizgarri gisa. Birgaitze-jarduketak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOREn Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak, bai eta beste eremu babestu batzuk ere) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitatei buruzko Zuzentarauaren 6. (3) eta 12. artikuluak eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IEE Zuzentarauaren arabera.

Jarduketak diseinatzean eta garatzean DNSH printzipiora egokitzeko, honako gida orientagarri hau erabili ahal izango da:
https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion transformacion resiliencia/transicion- verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

a) “Neurri egokiak eta estandar altuenak hartzea Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko eta funtsen erabilera (Mekanismoak finantzatutako neurriei dagokienez) aplikatu beharreko lege-esparrura egokitzen (dela zaintzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzeko neurriak prebenitu, hauteman eta hartzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharraren esparruan betiere. Kontratistak barne-kontrolerako ezarrita dituen sistemak alde batera utzi gabe, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planari –Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Akordioan onartutakoari– lotuta egongo da kontratista; izan ere, bertan jasotako gomendioak berariaz bete beharko ditu.

b)Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei kontrola eta jarraipena egiteko ardura duten estatuko eta Europako organoek –bereziki, Europako Batzordeak, Europako Kontuen Auzitegiak, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) eta Europako Fiskaltzak– proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko jarduketen mende jartzea; izan ere, gauzatutako informazioari buruzko xehetasunak eskuratu ahal izango dituzte organo horiek.

c) Laguntzen jarraipena egiteko metodologia betetzea, SEEPean aurreikusitakoaren arabera, mugarriak eta helburuak betetzeari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraikiz. Halaber, bete egin da Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (CID) eskatutakoa, bai eta etiketatze klimatikoaren eta digitalaren baldintzak ere.

d) Funtsen azken hartzailea identifikatzea (kontratistak eta azpikontratistak) HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lizitazio-prozeduretan jasoaraztea funtsen azken hartzaileek honako informazio eta dokumentazio hauek aurkeztu behar dituztela derrigorrean:

(i)Kontratistaren eta azpikontratisten IFZa.
(ii)Izena edo izen soziala
(iii)Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten zerga-egoitza
(iv)Nola kontratistaren hala azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez. Horretarako, Benetako Titulartasunaren Erantzukizunpeko Adierazpena betetzeko eskatuko dute, (0 eranskina), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuarekin bat.

Horretarako, kontratistak eta azpikontratistek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute.

e)Bai kontratistak bai balizko azpikontratistek iruzurraren aurkako politikari atxikitzeko eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpena sinatuko

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

dute, artikulu honetan ezarritakoaren arabera (XX. eranskina).

f)Bai kontratistak, bai balizko azpikontratistek finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena sinatuko dute (XXI eranskina). SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote. (Eredua 1. eranskinean dago).

g)Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa).(XIX. eranskinean dago).

h)Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA). (XVII. eranskinean dago).

i)Inplikatutako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorriz Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin. (XXII. eranskinean dago).

j)Kontratistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioko errolda baliokidean; prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

k)SEEParen publizitatearen eta komunikazioaren arloko betebeharrak betetzea.

1.“Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurrien plana kontratuari aplikatzea –erakunde erabakitzaile edo betearazleak aldez aurretik onartutako kontratuari dagokion interes-gatazka barne hartzen duena–, bermatzeko eta adierazteko, jarduketa-arloari dagokion NEXT GENERATION prozedura ireki bidez obra bat kontratatzeko administrazio-klausula partikularren agiriaren ereduan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, zehazki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez. Iruzurraren aurkako neurrien planetatik eratorritako nahitaezko neurriak, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

2.Kontratistak eta azpikontratistek funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa ematea, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan ezarritako baldintzetan, bete ahal izateko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduren 22.d) artikuluaren eskakizuna. Horretarako, kontratistak eta azpikontratistek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

3. Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende egotea, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea."

32 AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratuaren exekuzioa azpikontratatu eta laga daiteke, administrazio baldintza zehatzen orriko **33. atalaren** arabera

33 KONTRATUA ALDATZEA

Aurreikusitako aldaketak:
Kontratuan %20ra arteko aldaketak aurreikusten dira. Aldaketen irismena, mugak eta izaera, bai eta hura erabiltzeko baldintzak ere kasu hauetan:

- Eraikuntzara egokitzeko aldaketak: Eraikina oraindik eraikuntza-prozesuan dagoenez, litekeena da obra zibilaren garapenaren arabera hidrotermiaren instalazioa egokitu behar izatea. Instalazio-sistemak eraikinaren egiturarekin, isolamendu-sistemekin eta azken erabilera-baldintzekin bat etorri behar du. Ondorioz, beharrezkoa izan daiteke aurreikusitako sistemaren osagai batzuk aldatzea edo egokitzeko lan gehigarriak egitea (hala nola, zundaketa-puntu berriak, hoditeria-bide alternatiboak, edo ponpa termikoen kokapenaren aldaketak). Horrelako egokitzapenak ezin dira zehaztasunez aurreikusi oraindik, eta horregatik malgutasun horri erantzuteko aukera egon behar da.

- Teknologia berrietara egokitzeko gaitasuna: Proiektu hau martxan jartzen denean, orain arte kontuan hartu ez diren soluzio teknologiko berriak egon daitezke merkatuan, energiaren efizientzia hobetzeko, kontrol adimendunerako sistemak txertatzeko edo mantentze-lanak optimizatzeko. Hori dela eta, interesgarria da sistema malgu bat aurreikustea, aldaketak egiteko gaitasunarekin, teknologia berriak sartuz, betiere jasangarritasuna eta errendimendua hobetzeko helburuarekin. Horrek baliteke instalazioaren elementu batzuk aldatzea edo osagarri berriak gehitzea eskatzea.

Aurreikusi gabeko aldaketak: Interes publikoko arrazoiengatik aurreikusi gabeko aldaketak sartu ahalko dira soilik, eta 205. artikuluan aurreikusitako inguruabar eta mugetako batzuk gertatzen direnean

Jarraitu beharreko prozedura: Baldintza agiri administratiboen **32. klausulan** adierazitakoa

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

34 KONTRATUA JASOTZEA ETA BERME EPEA

- Zerbitzua hartzeko epea: Hilabete bat
- Kontratua bermatzeko epea: obran urtebete.

35 SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dagokio

36 KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

1. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 211. artikuluko a) idatz-zatitik i) idatz-zatira eta 313. artikuluan aurreikusitakoak

2. Ebazteko arrazoi zehatzak hauek dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea

- Baldintza agiri teknikoetan funtsezkotzat jotzen diren betebeharrak ez betetzea, hala badagokio

- Baldintza agiri administratiboen **22. klausulan** adierazitako kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea

- Baldintza agiri administratiboen **20. eta 21. klausuletan** adierazitako kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea

- Baldintza agiri administratiboen **22. eta 23. klausuletan** Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko MRR funtsei buruz ezarritako betebeharrak ez betetzea

- Mugarriak eta helburuak ez betetzea.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso larriengatik administrazio bidean irmo kondenatua edo zehatua izatea

37 DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Datu pertsonalen tratamendua dago: Udalak datu pertsonalen tratamendua kontratu honetan ezarritako zerbitzu eta prestazio guztiak kudeatu eta garatzeko erabiliko du, eta beharrezkoak izango dira helburu horiek betetzeko. Beraz:

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Kontratua formalizatu baino lehen, esleipendunak adierazpen bat aurkeztuko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzu horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duena, bai eta kontratua indarrean dagoen bitartean adierazpen horretan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa ere, plegu honen eranskineko ereduaren arabera

39 KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko erregimenari lotuta dago, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta hori garatzen duen araudiak (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) arautzen dute; beraz, enpresak bete egin beharko ditu hizkuntza-eskubide horiek

40 ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzibidea arautzen duen 29/1998 Legearekin bat.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Sinadurea eta datea

ELISABET ERCILLA URIZARBARRENA-Idazkaritzako AOT - 25/06/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2025 13:25:44

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0021

Datea: 10/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

BERMEOKO TURISMO BULEGOA ETA UDAL LIBURUTEGIA DAUDEN ERAIKINEAN HIDROTRUKE SISTEMAREN EGOKITZAPEN PROIEKTUAREN IDAZKETA, OBRA ZUZENDARITZA, OBRAREN EXEKUZIOA, MARTXAN JARTZEA ETA MANTENTZE KONTRATU MISTOAREN (OBRA+ZERBITZUA) BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.
BERRESKURATZEA, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARNE.
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA.

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrizan hauek ase gura dira.

Kontratu hau ez da loteetan banatuko da, justifikazio memorian azaldutako arrazoiak direla medio.

Kontratuaren xedea ikusita, zerbitzu administrazio-kontratu da, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 17. eta 25. artikuluak kontuan hartuta.

Kontratu hau burutzeko beharrizana sail sustatzaileak egindako justifikazio memorian zehaztuta dago.

CPV: **1.4 atalean** zehaztutakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri horiek kontratu-balioa dute.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **3. atalean** zehaztutakoa da.Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauek ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolanahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90013647900R1J7X2R8F9N5
Sinadurea eta datea
ELISABET ERCILLA URIZARBARRENA-Idazkaritzako AOT - 25/06/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2025 13:25:44
EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0021
Datea: 10/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3. KONTRATUAREN ARDURADUNAK ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

Kontratuaren arduradunari dagokio, SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuaren betearazpena gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, kontratazio-organoak esleitzen dizkion eskumenen esparruan.

SPKLren 62.2 artikuluaren arabera, obra-kontratuetan, kontratuaren arduradunaren eskumenak zuzendaritza fakultatiboak beteko ditu, SPKLren 237. artikulutik 246.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren arduraduna plegu honen laburpen-taulako 6. atalean adierazitakoa izango da.

Enpresa kontratistak behar diren kontsiderazioak gorde eta betearaziko dizkie zuzendaritza fakultatiboko langileei. Zuzendaritza fakultatiboak sarbide librea izango du langune eta obretarako materialen biltegi guztietara, haiek aztertu ahal izateko.

Obraren zuzendaritza fakultatiboak kalak irekitzeko agindu ahal izango du, eraikuntzako ezkutuko akatsak daudela edo kalitate eskaseko materialak erabili direla susmatzen badu. Akats horiek daudela baieztatzen bada, kontratistaren kontura izango dira aintzatespenak eta zuzenketak eragindako gastuak. Bestela, zuzendaritzak kalak gauzatzeari eta konpontzeari dagokion kalte-ordaina egiaztatuko du, esleipen aurrekontuaren unitateko prezioetan baloratuta.

Era berean, zuzendaritza fakultatiboak, APKLEOren 145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, obra-materialen eta -unitateen saiakuntzak eta analisiak egiteko agindu ahal izango du, eta kasu bakoitzean egoki diren txosten espezifikoak bilduko dira. Sortzen diren gastuak administrazioaren edo kontratistaren kontura izango dira, dagokionaren
arabera.

Zuzendaritzak premiaz agindu ahal izango du berehalako o arriskua dagoenean egin beharreko lanak egitea. Enpresa kontratistak lan horiek egin beharko ditu, obraren zuzendaritzak ondoren dagokion administrazio-izapidetzea sustatzeari kalterik egin gabe.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Kontratua betearaztean sortutako gorabeheren ebazpena kontraesaneko espediente baten bidez izapidetuko da, HAKLEOren 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu lanak gauzatzeari eta obra zuzendu eta ikuskatzeko emandako jarraibideen arabera egiten dituen materialak eta obrak kontrolatu eta zaintzeari dagozkion erantzukizunak.

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratua egiteko epea laburpen taularen **8. atalean** jasotakoa izango da.

Enpresa esleipen-hartzailea berandutu dela ulertuko da atal horretan ezarritako epea igaro eta prestazioa gauzatu ez bada, eta administrazioak ez du aldez aurretik errekerimendurik egin beharrik izango.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratu honen balio estimatua, kontratuaren xede diren loteak kontutan edukita, laburpen taularen **9. atalean** jasotako moduan banatzen da.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **10. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutatutako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida legez zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da indarreko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende gelditzuko da.

Aplikagarria den partida laburpen taularen **11. atalean** zehaztutakoa da.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Kontratu hau Europar Batasunaren Tratatuaren xedapenen eta horren arabera finkatutako egintzen mende egongo da, eta bat etorriko da Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko mekanismoaren helburu orokorrarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Erresilientziarako eta Batasunerako Mekanismoak, ezartzen duen 2018ko 1018 Erregelamenduak, xedatutakoaren arabera.

9. ORDAINKETAK, NEURKETAK ETA BALORAZIOA

Proiektuaren agirien arabera eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatibotik jasotako aginduen arabera egiten duen obra baino ez zaio ordainduko enpresa kontratistari.

Egindako lanak obraren zuzendaritzak neurtuko ditu, eta kontratistak lanak nola egiten diren ikusi ahal izango du. Neurketak HAKLEOren 147. artikuluan ezarritako moduan egingo dira.

Obra mota bakoitzerako, neurketa-unitate gisa hartuko da proiektuko neurketa azterketetan dagokion epigrafean adierazitakoa. Neurketa amaitu ondoren, zuzendaritza fakultatiboak gauzatutako obraren balorazioa egingo du, unitate bakoitzari aurrekontuaren unitateko prezioa edo dagokion kontraesana aplikatuz, eta kontuan hartuko da agirietan obra akastunak, pilatutako materialak, oroharreko partidak eta obran jarritako ekipoaren konturako ordainketak ordaintzeko aurreikusitakoa.

Balorazioaren emaitzari, aurreko paragrafoan adierazitako moduan lortutakoari, aurrekontua osatzeko HAKLEOren 131. artikuluan adierazitako ehunekoak gehituko zaizkio, eta ateratzen den zifra esleipen-koefizienteaz biderkatuko da. Horrela, hileko ziurtagiria ekarriko duen zerrenda baloratua lortuko da, administrazioak dagokion hilabetearen ondorengo 10 egunetan emango duena.

Obra-ziurtagiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du administrazioak prezioa, eta berandutuz gero, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, 30 eguneko epe hori bete ondoren, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak faktura dagokion administrazio erregistroan aurkezteko betebeharra beteta izan beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, 30 eguneko epean, salgaiak entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.

SPKLren 210. artikuluko 4. paragrafoan eta 243. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, emandako ondasunen edo emandako

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

zerbitzuen obra-ziurtagiriak edo kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu administrazioak, ondasunak entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo 30 egunen barruan.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu betetzen faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko 30 eguneko epea, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko harik eta faktura behar bezala aurkezten denetik 30 egun igaro arte, eta administrazioak ez badu, hala badagokio, onespena onartu eta dagokion ordainketa egin.

Ematen diren ziurtagiriek eta kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoek konturako ordainketatzat hartuko dira, eta ez dute berekin ekarriko, inola ere, obra horiek onartzea eta jasotzea, gauzatutako obren azken ziurtagiriaren ondorioz eta kontratuaren likidazioaren kontura. Konturako ordainketa horietan, SPKLren 198. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoa beteko da.

Enpresa kontratistak, idatziz eskatu ondoren, konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du pilatutako materialengatik eta instalazioengatik edo ekipamenduengatik, HAKLEOren 155. artikulutik 157. artikulura bitartean horretarako zehaztutako moduan eta bermeekin.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta berau garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, bai SPKLren 103. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea
Kontratuaren ezaugarriak kontutan edukita, ez da beharrezkoa ikusten behin-behineko bermea ezartzea parte hartzaileek proposamena mantentzen dutela bermatzeko, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat.

Behin betiko bermea
Behin betiko bermea esleipen-prezioaren %5 izango da (BEZa kanpo), SPKLren 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta SPKLren 108. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 55. artikulutik 58. artikulura eta 61. artikuluetara aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da.

SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko berme hori jarri duela egiaztatu beharko du

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

emandako epean.

Esleipendun gisa proposatutako izangaiak, horretarako emandako epean, behin betiko bermea aurkezten ez badu, puntuazioan hurrengoa den izangaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eta behin betiko bermea eratzeko epea emango zaio.

Kontratuaren epea bukatutakoan, eta kontratua behar bezala gauzatu dela frogatzeko egindako txostenaren bidez, kontratua atxikitzeko arrazoirik izan gabe, itzuli egingo da.

II.- KONTRATAZIO PROZEDURA

12. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu hau esleitzeko, prozedura ireki sinplifikatua erabiliko da, eta esleipen-irizpide bakarra edo esleipen-irizpide ugari hartuko dira kontuan, laburpen-taulan xedatutakoaren arabera.

Halaber, prozedura arrunta jarraituko da, SPKLren 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Esleipenerako oinarri izango diren irizpideak eta formulak laburpen-taulako 25. atalean zehaztutakoak izango dira.

13. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzen badute, eta haien helburuak kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena badu, bakoitzaren estatutuetan edo sorrerako arauetan ezarritakoaren arabera, eta behar bezala egiaztatzen bada. Era berean, kontratua behar bezala gauzatzeko behar beste elementu pertsonal eta material izan beharko dituzte.

Hala ere, lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Estatuko oinarrizko legeriak ezarritako kontratatzeko debekua duten pertsona fisiko edo juridikoak, besteak beste, berdintasun plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzeagatik, edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloan arau-hauste oso larria egiteagatik delitu edo zehapen irmoak egiteagatik.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatu behar duenak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako klausulak, laburpen-taulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-dokumentuak, inolako salbuespenik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela adieraziz.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Enpresa lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez banaka, ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko baino gehiagoko kide gisa, eta lizitazio indibiduala egiten duenak ezin izango du proposamenik izenpetu aldi baterako enpresa elkarte batekin. Arau horiek urratuz gero, ez dira onartuko sinatutako eskaera eta eskaintza guztiak.

14. DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Dokumentazioa aztertzea: Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, kontratugilearen profilean kontsultatu ahal izango da. Hona hemen lotura: http://bermeo.eus/udalaren_kontratuak.html.

Dokumentazio edota kontratazioaren gainean egiten diren kontsulta edo erantzunak lotesleak izango dira kontratazio organoarentzat eta kontratugilearen profilean argitaratuko dira SPKLren 138.3 artikuluarekin bat.

Proposamenak aurkeztea: ondorengo moduan, lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu beharko dira:

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: 15 egun natural, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (SPKLren 159.3 artikulua).

Lehiatzaileek bi artxibo aurkeztu beharko dituzte: A eta B.

"A" artxiboan testu hau idatziko da: laburpen taularen 21. atalean zehaztutako izena: "BERMEOKO TURISMO BULEGOA ETA UDAL LIBURUTEGIA DAUDEN ERAIKINEAN HIDROTRUKE SISTEMAREN EGOKITZAPEN PROIEKTUAREN IDAZKETA, OBRA ZUZENDARITZA, OBRAREN EXEKUZIOA, MARTXAN JARTZEA ETA MANTENTZE KONTRATU MISTOAREN" (lotearen izena) A ARTXIBOA: DOKUMENTAZIO OROKORRA ETA BALIO-JUDIZIO BATEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK."

Hona hemen A artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Erantzukizunpeko adierazpena Bermeoko Udalaren aurrean, baldintza agiri administratiboen I.eranskinaren ereduaren arabera.

b) Interes Gatazkarik Ezaren erantzukizunpeko adierazpena (IGEA) V. eranskina.

c) Erantzukizuneko aitorpena, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. XVIII eranskina.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Sinadurea eta datea
ELISABET ERCILLA URIZARBARRENA-Idazkaritzako AOT - 25/06/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2025 13:25:44

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0021
Datea: 10/07/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

d) Hala badagokio, ABEEren aitorpen eredua.

e) Balio-judizio bidezko irizpideei buruzko dokumentazioa, laburpen-taula honetako 26. atalean adierazitako dosier/memoria aurkeztu beharko da.

"B" artxiboan testu hau idatziko da: laburpen taularen 21. atalean zehaztutako izena: "BERMEOKO TURISMO BULEGOA ETA UDAL LIBURUTEGIA DAUDEN ERAIKINEAN HIDROTRUKE SISTEMAREN EGOKITZAPEN PROIEKTUAREN IDAZKETA, OBRA ZUZENDARITZA, OBRAREN EXEKUZIOA, MARTXAN JARTZEA ETA MANTENTZE KONTRATU MISTOAREN" (lotearen izena). B ARTXIBOA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

Proposamen ekonomikoa eta automatikoki ebalua daitezkeen gainerako irizpideak aurkeztu beharko dira, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak sinatuta, administrazio baldintza agirien III. Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera idatzita.

Artxiboetan txertatzen diren agiri guztiak digitalki sinatuta joan beharko dira.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
5) Pleguaren III. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredua nabarmen aldatzen dutenak.
6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, kontratazio mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarka, ez aldi baterako enpresa elkarte bateko baino gehiagoko kide gisa. Arau hau betetzen ez bada, sinatutako eskaera eta eskaintza guztiak ez dira onartuko.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Horiek horrela, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira eta kontratua burutzen den unean iraun.

AGIRIEN AURKEZPENARI BURUZKO OHARRAK

Konfidentzialtasuna

Aurkeztutako agiriren bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek izendapen zehatza egin behar dute (A artxiboan aurkeztu beharreko erantzukizuneko aitorpena bete behar dute), eta argi eta garbi adierazi behar dute, gain inprimatuta edo orriaren marjinan, konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan. Izendapena horrela egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

Eskaintza ekonomikoa ez da inolaz ere isilpekoa izango. Eskaintza ekonomikoaren isilpeko izendapena ez dela egin ulertuko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioa ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osora zabaldu, ez eta eskaintza teknikoaren egiaztagiri guztietara ere. Kasu horretan, edo adierazpen hori behar bezala dimentsionatzen ez bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoiak emanda, zer datu eta/edo dokumentu diren. Era berean, kontratazio-organoak ere jardungo du, baldin eta deklarazioak ez badu jasotzen lizitatzaileak konfidentzialtzat jo duen informazioa emateko arrazoi egoki eta aski oinarriturik.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu edo/eta agiririk isilpekotzat, aurkeztutako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala ulertuko da. Hala ere, salbuespen gisa eta arrazoiak emanda, kontratazio-organoak isilpekotzat jo dezake hala deklaratu ez den informazioa, enpresaren bidezko interesak babesteko.

Halaber, eskaintzak aurkeztutakoan, ezin izango da isilpekotzat jo aurkeztu ez diren datuak.

Esleipen prozeduran hasierako eskaintzakoa ez den dokumentazioa aurkezten bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datu edo dokumentuak konfidentzialtzat izenda daitezke, aurreko lerroaldeetan azaldutako baldintzetan.

Dokumentazioaren egiazkotasuna

Administrazioak egiaztatu ahal izango du, esleipena egin baino lehen eta

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

kontratua gauzatu bitartean, artxibo agirien edukia egiazkoa dela, bai eta karatulan esleitzeko irizpidetzat hartzen direnak ere, eta ulertu behar da enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izateak kontratua baliogabetzea ekar dezakeela, hala badagokio, kontratistari kalte ordainezina leporatu ahal zaiolako, eta eratutako behin betiko bermea galdu egin dela.

15. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da A artxiboa irekitzeko eta dokumentazioa kalifikatzeko. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo omisioak ikusten badira, kontratazio-mahaiak interesdunei jakinaraziko die, eta 3 egun naturaleko epea emango die lizitatzaileek zuzen edo zuzen ditzaten (SPKL, 141.2 artikulua).

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskaerak baloratu aurretik, kontratazio-**organoaren titularrak honako informazio hau bildu eta txertatuko du ZAEAren** MINERVA tresnan:

1. Eragiketak CoFFEEn zuen erreferentzia-kodea (CRO).
2. Kontratazio-organoko kideen eta kide anitzeko laguntza-organoko kideen zerrenda, izen-abizenak eta IFZ adierazita.
3. Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen zerrenda, izen-abizenak edo IFZ adierazita. Pertsona juridikoak izanez gero, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira. Parte-hartzaileak ez badu Espainiako IFZrik, MINERVAk ez du azterketa egiteko informaziorik edukiko; kasu horretan, bandera beltzak identifikatzeari lotutako eragiketa gauzatuko da.

Datuak gurutzatu ondoren, MINERVAk hurrengo egunean emango dio interes-gatazka egoteko arriskuaren analisiaren emaitza kontratazio-organoaren titularrari. Analisi horretatik, bandera gorriak eta/edo beltzak detektatu ahalko dira (edo ez):

- Bandera gorririk aurkitu ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du.
- Bandera gorri bat edo gehiago aurkitu badira, eragindako erabakitzailearen egoera argitu beharko da. Ezin izango da prozedurarekin jarraitu egoera argitu arte. Horretarako, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio. Agindu hori BEEPa betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa da.
- Bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, ez da prozedura automatikoki etengo. Kasu horretan, kontratazio-organoak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die parte-hartzaileei. Informazio hori bost egun balioduneko epean eman beharko diote kontratazio-organoari, informazio eskaera egin zenetik zenbatzen hasita. Informazioa entregatzen ez badute, parte hartzen ari diren prozeduratik baztertuko zaie.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Proposamen ekonomikoak irekitzeko eguna (B artxiboa) kontratugilearen profilean argitaratuko da. Irekitzeko ekitaldi publikoa baliabide telematikoen bidez egingo da, streaming bidez, merkatuko baliabide teknologikoak kontuan hartuta, ekitaldiaren publizitate handiena denbora errealean emateko.

Saio berean, baina publikoa ez den ekitaldi batean, kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

1. Proposamenak ebaluatu eta sailkatzea.
2. Puntuazio onena duen lizitatzaileen aldeko esleipen proposamena egitea.
3. Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak ahalmen nahikoa duela eskaintza egiteko, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela eta ez duela kontratatzeko inolako debekurik.
4. Puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatzea komunikazio elektronikoaren bidez behin betiko bermea eratzeko, bai eta SPKLren 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa aurkezteko eta kontratua gauzatzeko erabili edo atxikiko zituen bitartekoak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera; eta hori guztia zazpi egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Enpresaburua ROLECEn inskribatuta badago edo EBko estatu kide bateko datu-base nazional batean enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema bat edo aurre kalifikazio-sistema bat bezala agertzen bada, eta horiek organo horiek doan eskura badaitezke, ez da behartuta egongo aipatutako lekuetan inskribatutako datuen justifikazio-agiriak edo beste froga dokumental bat aurkeztera, eta bertan adierazitako inguruabarrak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizuneko aitorpena soilik aurkeztu beharko da (XIII. eranskina).

ROLECEn edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta egoteak enpresaburuaren gaitasun-baldintzei buruzko dokumentazioa aurkeztetik salbuetsiko ditu inskribatutako lizitatzaileak, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.

SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrendetan datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaileen erregistroan inskribatuta ez dagoen eta baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera eska daitekeen beste edozein agiri ere aurkeztu beharko da 7 egun balioduneko epean. Beraz, datu edo dokumenturen bat ez badago erregistroetan inskribatuta, kontratazio-organoak eskatu beharko dio eskaintzarik

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

onena aurkeztu duen enpresaburuari edo lizitatzaileari, bai eta adjudikaziodun gisa proposatu den ABEEa osatzen duten enpresa guztiei ere, 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita, hala badagokio, dokumentazio hau aurkez dezaten:

1.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak

- Zerga-betebeharrak:
A) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta eman izanaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, dagokion ekitaldiari edo azken ordainagiriari buruzko proposamena aurkezten duen egunean egiten dituen jarduerei dagokienez, eta zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin osatuta. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1 artikuluko d), e) eta g) idatz-zatietan ezarritako salbuespenen batean egonez gero, foru ogasunek edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak salbuespena emateko berariazko ebazpena ere aurkeztu beharko dute. Aldi baterako enpresa elkarteek, eraketa formalizatu ondoren, zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, enpresei dagokien tributazioa alde batera utzi gabe.

B) Foru-ogasunek edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, HAKLEOren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren Hamalaugarren Xedapen Gehigarriaren arabera araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta kasuan kasuko elkargo profesionaleko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzea aukeratu duten edo duten elkargokideek kasuan kasuko Mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bertako kide direla egiaztatzeko.

Ziurtagiri hori aurkezteak ez du salbuesten interesduna baldintza-agiri honetan adierazten diren gainerako betebeharrak justifikatzetik, baldin eta bere kargura langileak baditu; bestela, erantzukizunpeko adierazpen bidez justifikatu beharko du inguruabar hori.

2.- Kaudimen teknikoa edo profesionala eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, behar bezala egiaztatuta eskatutako agiri eta baliabideen bidez (VII. eta VIII. eranskinak).

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik edo omisiorik ikusten bada, interesdunari jakinaraziko zaio, eta gehienez ere egutegiko 3 eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan. Hala ere, errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio puntuaziorik handiena duen hurrengo hautagaiari.

Edonola ere, errekerimendua tramitatu aurretik egiaztatu beharko da onartzen diren eskaintzak balio anormalak edo baxuetan sartuta dauden. Horretarako, laburpen taulako 25. ataleko baldintzak hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira. 5 egun balioduneko epea emango da lizitatzaileek beren eskaintza justifikatzeko. Epe hori iraganik, kontratazio mahaiak justifikazioak aztertuko ditu eta horiek onartu edo baztertzea proposatuko du, arrazoiak emanez.

Onuragarriak diren proposamenen artean berdinketa badago (puntuazio-berdintasuna bi hamartarrekin), esleipenean lehentasuna izateko, SPKLren 147.2 artikuluan zerrendatutako irizpideak aplikatuko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagozkionak.

Berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dituzte lizitatzaileek berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak, ez aurretik. Horretarako, kontratazio mahaiak behar den dokumentazioa eskatuko die lizitatzaileei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die aurkezteko.

Aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kontratazio organoari igorriko zaio kontratazio mahaiak kontratua esleitzeko egindako esleipen proposamena.

Administrazioak egiten dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, Euskadiko Kontratazio Plataformaren bidez edo, hala badagokio, Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

16.ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio organora proposamena bideratu eta hurrengoko egutegiko 5 eguneko epean egin beharko da esleipena.

Esleipena, proposamenak zabaldu eta egutegiko 15 eguneko epean egingo da gehienez. Bestelako kasuetan, gehienezko epea hile bikoa izango da.

Horrela egingo ez balitz, lehiatzaileek beraien eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute eta horrek ez diete inolako eraginik sortaraziko.

Behin esleipena eginda, kontratua agiri bidez formalizatuko da, esleipendunari

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

esleipena jakinarazi eta hurrengoko 15 laneguneko epean.

Esleipendunak epe horretan kontratua sinatuko ez balu, lizitazio prezioaren (BEZa kanpo) % 3ko zigorra ezarriko zaio, behin betiko bermearen kontura joango dena lehendabizi holakorik ezarrita egon ezkero.

Kasu honetan, hurrengo geratu denari esleitu zaio kontratua, aurreko atalean zehaztutako errekerimendua egin eta bete ondoren.

Gainera ABEE eratzeko asmoa agertu izan bada, ABEE eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztuko ez balitz, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta bertan behera utzi ahal izango da, SPKLren arabera, eta zerrendan hurrengo geratu denaren aldeko esleipena egingo da.

Esleipenaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta hala badagokio, eskaintzak baloratzeko txostenarekin batera. Jakinarazpenak helbide elektroniko gaitu baten bidez edo Euskadiko kontratazio publikoko plataforman agertuz egingo dira.

Epeak jakinarazpena edo jakinarazpen oharra igortzen den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerpen elektronikoaren bidez egiten bada, eta jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko dira kontatzen.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berorri gauzatzen hasi.

Behin kontratua formalizatuta, formalizazioaren iragarkia eta kontratua bera kontratugilearen profilean argitaratutako da, gehienezko egutegiko 15 eguneko epean. Formalizazio iragarkia, SPKLren III. Eranskinean zehaztutako gutxiengo informazioa jaso beharko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

gainean.

Kontratua burutzeko epea amaitu baino lehen kontratua suntsiarazten bada, lizitazioan bigarren postuan geratu den enpresa lizitatzaileari esleituko zaio kontratua amaiera epea bukatu arte, betiere esleipenarekin eta formalizazioarekin ados dagoela adierazten badu. Enpresa lizitatzailea ados ez badago edo uko eginez gero, jarduketa bera jarraituko da hurrengo enpresekin, lizitazioaren emaitzaren beheranzko hurrenkerari jarraituz.

17. ASEGURUAK

Enpresa kontratistak, hala badagokio, baldintza-agiri honen laburpen-taulan adierazten diren aseguru-polizak izenpetu beharko ditu, bertan ezartzen diren kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzengatik.

18. KONTRATUARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio-organoak erabakitzen badu dagokion deialdia egin den kontratu bat ez esleitzea edo ez egitea, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere emango dio erabaki horren berri, kontratua "Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean" iragarri denean.

Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du formalizatu aurretik. Kasu horietan, lizitazioan parte hartzeko gai diren hautagaiei edo lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie iragarkian edo pleguan aurreikusitako moduan egindako gastuengatik, edo, halakorik ezean, administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideen bidez.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik hartu ahal izango da kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia. Kasu horretan, ezin izango da xedearen beste lizitazio bat sustatu, erabakia oinarritzeko alegatutako arrazoiek irauten duten bitartean.

III.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA

19. ARRISKUA ETA MENTURA

Kontratua enpresa kontratistaren arriskupean gauzatuko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta SPKLren 239. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

20. ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak, eta obren zuzendari fakultatiboak kontratistari interpretazio teknikoa egiteko ematen dizkion

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

jarraibideen arabera. Jarraibide horiek hitzezkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta epe laburrenean, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu, halaber, eraikuntzaren akatsen gainean obraren zuzendaritza teknikoak ematen dizkion jarraibideak.

Zuzendaritza fakultatiboaren iritziz obraren zatiren bat behar bezala egin ez bada, enpresa kontratistak berregin egin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta jaso ondoren ikusi.

Zuzendaritza fakultatiboak obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla uste badu, onar ditzala proposa diezaioke administrazioari, eta horrek prezioak jaistea ekar dezake. Kasu horretan, enpresa kontratistak nahitaez onartu beharko ditu administrazioak ezarritako prezio beheratuak, non eta ez duen nahiago unitate akastunak bere kabuz eta kontratuaren baldintzen arabera eraistea eta berreraikitzea.

Kontratazioak obra-proiektua idaztea barne hartzen badu, proiektua idatzi duen enpresa kontratistak kontratazioaren xede den proiektua entregatu beharko du, kopia batekin batera, euskarri informatikoan.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, kontratua eskritura publiko bihurtzen denean formalizatzekoak, bai eta kontratua gauzatzeko bidezkoak diren lizentzia, baimen eta baimen guztiak ere. Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen- eta entsegu-gastuak, obraren aurrekontuaren % 1era arte, tasak eta mota guztietako zergak, BEZa eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzearen ondorioz sor daitekeen beste edozein.

Bai lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan, bai esleipen-proposamenetan, kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak sartuko dira ondorio guztietarako.

21. ENPRESA KONTRATISTAREN LAN-, GIZARTE- ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistak nahitaez bete behar du lanaren eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia. Halaber, honako hauek bete beharko ditu: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako dena; 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako integrala; 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Dekretuaren bidez onartua, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen diren arauak ere.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak.

Esleipendunak, ahal den neurrian, langileen egonkortasuna mantendu beharko du kontratu honen xede den prestazioan. Langileren bat ordeztu behar bada, bermatu beharko du ordezkoak baldintza-agirietan eta kontratuan zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Gorabehera horiek udalari jakinarazi beharko zaizkio.

Enpresa esleipendunak beti bermatu beharko du baldintza horiek zorrotz betetzen direla, baita kontratuaren zati bat azpikontratatzen den kasuetan ere. Udalak, betebehar horiek betetzen direla bermatzeko, egokitzat jotzen dituen agiriak aurkezteko eskatzeko eta dagozkion ikuskapenak egiteko ahalmena izango du.

22. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Ingurumen inguruko baldintza bereziak:
Enpresa kontratistak, kontratuaren exekuzioaren hasieran, memoria bat egin beharko du, hurrengo betebehar honek betetzeko hartuko diren neurriak adieraziz. Memoria hori Udaleko zerbitzu teknikoek onartu beharko dute:

- Obrak egiteko behar den ur-kontsumoa minimizatzeko eta berrabiltzeko neurriak ezarriko dira.

- Eragozpenak sor ditzaketen zaratak eta bibrazioak minimizatzeko beharrezko neurriak hartuko dira, eta eragozpen horiek eragiten dituzten lanak egingo dira egoitzako egoiliarrekin atseden-ordutegiekin bateragarriak diren ordutegietan, betiere zaratara buruzko araudi espezifikoa errespetatuz.

- Atmosfera ahalik eta hauts gutxien isuriko da, eta, horretarako, ebaketa-sistema hezeak, baldekadak eta horretarako egokiak diren beste sistema batzuk erabiliko dira.

- Sor daitezkeen hondakinak indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera tratatu beharko dira.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako baldintza bereziak: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 22.1. artikuluaren arabera, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremu espezifikoan irizpide sozialak txertatzeko nahitaezko eta beharko dute, eta, beste neurri batzuen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak sartuko dituzte esleipen-irizpideen eta gauzatzeko baldintza berezien artean, bereziki kontuan

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

hartuta 3.1 artikuluaren azken apartatuan aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeen egoera. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada kontratuaren xedeak ez duela zerikusirik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, kontratu-prestazioak ez duelako eraginik emakumeen eta gizonen egoeran, eta ezin delako horrelako klausularik txertatu, kontratazio publikoaren arloko oinarrizko araudiarekin bat etorriz.

1. **Ingurumeneko exekuzio baldintzak bereziak**: Next Generation- EU funtsetatik finantziatuta dago eta hori dela eta proiektuak 025 bis eta 050 etiketa klimatikoak beteko lituzke.
• 025 bis esku-hartze eremua: Lehendik dauden higiezinen eraginkortasun energetikoa berritzea, erakustaldi-proiektuak eta eraginkortasun energetikoaren irizpideekin bat datozen laguntza-neurriak (*)
(*) Neurriaren helburua, batez beste, gutxienez tarteko sakontasun-maila bat berritzea bada, eraikinak berritzeari buruzko Batzordearen 2019/786 (EB) Gomendioan definitzen den bezala. Eraikinak berritzearen helburua ere bada 85-92 esku-hartze eremuen zentzuan azpiegiturak sartzea.
- Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 100
- Ingurumen-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 40
- Trantsizio digitalerako laguntza kalkulatzeko koefizientea: Ez da aplikatzen
• 050 esku-hartze eremua: natura eta biodibertsitatea babestea, ondarea eta baliabide naturalak, azpiegitura berdeak eta urdinak
- Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 40
- Ingurumen-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 100
- Trantsizio digitalerako laguntza kalkulatzeko koefizientea: Ez da aplikatzen

2 **Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako exekuzio klausula**: kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, exekuzioari atxikitako emakumeen eta gizonen arteko ordainsarien berdintasuna bermatuko du. Bermatu beharko du ere lanbide-sailkapenean, lanaldiaren iraupenean eta prestakuntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dagoela. Kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriak ezarriko ditu ere.

Exekuzio baldintza berezi hau betetzen dela bermatzeko, esleipendunak, kontratua exekutatzeko atxikitako emakume eta gizonen soldaten, lanbide-sailkapenen, eta lanaldien konparaketa aurkeztu beharko du, egon daitezkeen desberdintasunak modu argian zehaztuta eta justifikatuta, sexu bereizkeriarekin ez dagoela kreditatzeko.

Langile horiei emandako prestakuntzaren laburpena ere aurkeztuko da, eta egon daitezkeen desberdintasunen justifikazioa egin beharko da, berriro ere sexu bereizkeriarik ez dagoela bermatzeko.

3Gainerako baldintza berezi hauek ere:
a) “Neurri egokiak eta estandar altuenak hartzea Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko eta funtsen erabilera (Mekanismoak finantzatutako

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

neurriei dagokienez) aplikatu beharreko lege-esparrura egokitzen (dela zaintzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzeko neurriak prebenitu, hauteman eta hartzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharraren esparruan betiere. Kontratistak barne-kontrolerako ezarrita dituen sistemak alde batera utzi gabe, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planari –Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Akordioan onartutakoari– lotuta egongo da kontratista; izan ere, bertan jasotako gomendioak berariaz bete beharko ditu.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei kontrola eta jarraipena egiteko ardura duten estatuko eta Europako organoek –bereziki, Europako Batzordeak, Europako Kontuen Auzitegiak, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) eta Europako Fiskaltzak– proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko jarduketen mende jartzea; izan ere, gauzatutako informazioari buruzko xehetasunak eskuratu ahal izango dituzte organo horiek.

c) Laguntzen jarraipena egiteko metodologia betetzea, SEEPean aurreikusitakoaren arabera, mugarriak eta helburuak betetzeari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraikiz. Halaber, bete egin da Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (CID) eskatutakoa, bai eta etiketatze klimatikoaren eta digitalaren baldintzak ere.

d) Funtsen azken hartzailea identifikatzea (kontratistak eta azpikontratistak) HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lizitazio-prozeduretan jasoaraztea funtsen azken hartzaileek honako informazio eta dokumentazio hauek aurkeztu behar dituztela derrigorrean:

(i)Kontratistaren eta azpikontratisten IFZa.
(ii)Izena edo izen soziala
(iii) Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten zerga-egoitza
(iv) Nola kontratistaren hala azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez. Horretarako, Benetako Titulartasunaren Erantzukizunpeko Adierazpena betetzeko eskatuko dute, (0 eranskina), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuarekin bat.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

e) Bai kontratistak bai balizko azpikontratistek iruzurraren aurkako politikari atxikitzeko eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpena sinatuko dute, artikulu honetan ezarritakoaren arabera (XX. eranskina).

f) Bai kontratistak, bai balizko azpikontratistek finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena sinatuko dute (XXI eranskina). SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote. (Eredua 1. eranskinean dago).

g) Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa).(XIX. eranskinean dago).

h) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA). (XVII. eranskinean dago).

i) Inplikatutako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorriz Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin. (XXII. eranskinean dago).

j) Kontratistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioko errolda baliokidean; prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

k) SEEParen publizitatearen eta komunikazioaren arloko betebeharrak betetzea”

1. “Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurrien plana kontratuari aplikatzea –erakunde erabakitzaile edo betearazleak aldez aurretik onartutako kontratuari dagokion interes-gatazka barne hartzen duena–, bermatzeko eta adierazteko, jarduketa-arloari dagokion NEXT GENERATION prozedura ireki bidez obra bat kontratatzeko administrazio-klausula partikularren agiriaren ereduan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, zehazki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez. Iruzurraren aurkako neurrien planetatik eratorritako nahitaezko neurriak, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

2. Kontratistak eta azpikontratistek funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa ematea, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan ezarritako baldintzetan, bete ahal izateko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduren 22.d) artikuluaren eskakizuna. Horretarako, kontratistak eta azpikontratistek erantzukizunpeko

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

adierazpen bat aurkeztu beharko dute.

3. Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende egotea, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea. ”zeharkako betebeharrari buruzko printzipio orokorra aplikatuko dute euskal botere publikoek. Horretarako, kontratazio publikoan genero-ikuspegia txertatu

23. BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO MRR FUNTSAK

A) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea

Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzeari dagokionez, kontratazio-organo honi nahitaez aplikatu behar zaizkio kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako planean jasotako berariazko neurriak.

Baldintza-orri honetan aipatzen den lizitazioan parte hartzeak esan nahi du lizitatzaileek eta ondorengo esleipendunek kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurrien planean jasotako neurriak bete beharra onartzen dutela, Espainiako eta Europako arauei dagokienez, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokionez, eta Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari buruz egindako erabakiei dagokienez.

Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkaren definizioak aplikatu behar dira, Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 Zuzentarauan (EB) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamenduan (EB, Euratom) jasota daudenak, 2018ko uztailaren 18koa, Europar Batasuneko aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileek baldintzarik gabe onartzen dutela berdintasunaren, lehia askearen, gardentasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatzeko betebeharra lizitazio-fasean, eta berehala jakinaraziko diote kontratazio-organoari interes-gatazka posibleak, agerikoak edo errealak, baldin eta horien berri badute eta kontratazio-prozeduran eragina izan badezakete. Era berean, interes publikoa arriskuan jartzen duten ekintzak ez egiteko konpromisoa hartzen dute, indarrean dagoen legedia ahalik eta azkarren betetzeko.

Europako Batzordeak, Iruzurraren Aurkako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolen mende egongo da kontratazio-espediente hori gauzatzea. Horretarako, organo horiei emango zaie kontratuari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko aukera.

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90013647900R1J7X2R8F9N5

Sinadurea eta datea

ELISABET ERCILLA URIZARBARRENA-Idazkaritzako AOT - 25/06/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2025 13:25:44

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0021

Datea: 10/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

B) Dokumentazioaren kontserbazioari buruzko arauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa

Kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat edukiko dute, eta bost urtez gordeko dituzte justifikazio-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantziazioari buruzko gainerako dokumentazioa, bai eta erregistroak eta dokumentuak ere formatu elektronikoan, saldoa ordaindu edo, ordainketa hori egin ezean, eragiketa ordaindu denetik hasita. Epe hori 3 urtekoa izanen da, finantzaketa 60.000,00 eurokoa edo txikiagoa bada.

Kontu ikuskapenei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo OLAFen ikerketei buruzko erreklamazioen tramitazioari buruzko erregistro eta agiriak gorde egingo dira harik eta auditoretza, errekurtso, auzi, erreklamazioen tramitazio edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, kontratistari edo azpikontratistari ikerketa horiek jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.

Erregistroak eta dokumentuak gorde eginen dira, bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartzen diren datuen euskarriak, besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizkorik beharko, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, jatorrizkoen baliokidetzat eta auditoretzarako fidagarritzat jo ahal izateko.

C) Komunikazio, goiburu eta logoen arloko betebeharrak, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera

Kontratua Berreskuratu, Eraldatu eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzeko egiten diren jarduera guztietan, kontratistek eta azpikontratistek EBren ikurra modu egokian eta nabarmenean erakutsi beharko dute, eta, horretarako, finantzaketa-adierazpen egokia aurkeztu beharko dute, hau dioena: “Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationUE””, PRTR logoarekin batera. Europar Batasunaren ikurra beste logotipo batekin elkartuta agertzen denean (Bermeoko Udala, PRTR), beste logotipoak bezain nabarmen eta ikusteko moduan erakutsi beharko da gutxienez.

Ikurrak bereizirik egon behar du, eta ezin da aldatu beste marka, marka edo testu batzuk erantsiz. Ikurraz gain, EBren laguntza nabarmentzeko ezin izango da bestelako ikus-identitaterik edo logotiporik erabili. Egindako jarduketei buruzko informazio eta komunikazio neurri horiek informazio karteletan, plaketan, argitalpen inprimatu eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, web orrietan, prentsako iragarki eta iragarkietan, ziurtagirietan eta abarretan jasoko dira. Informazio kartel eta plaka guztiak ongi ikusteko eta jendea sartzeko

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

moduko tokian jarri beharko dira.

Halaber, BEEPeko programa guztiak gauzatzeko, nahitaezkoa da "BEEPren markaren eskuliburua" erabiltzea. Horrek esan nahi du sortzen diren agiri, aurkezpen eta gainerako guztiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren identifikazio-elementuak jaso behar dituztela, eskuliburu horrek ezartzen dituen baldintza zehatzetan, bereziki "R" aren logotipoari dagokionez, Espainiako Gobernuaren identifikazio-armarriarekin batera.

"BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN KUDEATZAILE ETA ONURADUNENTZAKO KOMUNIKAZIO ESKULIBURUA" erreferentzia izan daiteke horretarako: 23112023 MANUAL DE COMUNICACIÓN PARA LOS GESTORES DEL PLAN.pdf (hacienda.gob.es)

Komunikazioaren, publizitatearen eta zabalkundearen arloko honako betebehar hauek bete beharko dira:

a) Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzkoak, aplikatu beharreko Europako eta Estatuko araudiarekin bat etorriz, eta, bereziki, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan jasotako betebeharrekin bat etorriz. Inbertsioak garatzen dituzten jarduketen informazio- eta komunikazio neurrietan (informazio-kartelak, plakak, paperezko argitalpenak eta argitalpen elektronikoak, ikusentzunezko materiala, web-orriak, iragarkiak eta prentsako iragarkiak, ziurtagiriak, etab.), honako logo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren ikurra;
2. Europar Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU» testua ere jasoko da;
3. 821/2014 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak kontuan hartuko dira. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, programaren ekarpenak transferitzeko eta kudeatzeko modalitate zehatzei, finantza-tresnei buruzko informazioaren aurkezpenari, eragiketen informazio- eta komunikazio-neurrien ezaugarri teknikoei eta datuak erregistratu eta biltegiratzeko sistemari dagokienez. Honako webgune hau ere kontsulta daiteke: Oficina de Publicaciones — Libro de estilo interinstitucional — Anexo A1 — Guía gráfica del emblema europeo (europa.eu), eta ikurraren adibideak deskargatu hemen: La bandera de la UE | Unión Europea. (europa.eu).

b) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orotan, Industria eta Turismo Ministerioak finantzatu dituela adierazi beharko da (logotipo ofizialak hemen eskura daitezke: Logotipos de los diferentes departamentos ministeriales – CAU SG DE FONDOS EUROPEOS (zendesk.com)), bai eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere. 11

c) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

orok Berreskurapen Planaren logoa erabili beharko du hedabide gisa. Esteka honetan dago eskuragarri: http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual.

d) Eremu honetan garatzen diren eta kontratistek/azpikontratistek aurkeztutako deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztietan (azterlanak, txostenak, inkestak...) honako erreferentzia hau jaso beharko da hala goiburuan, nola garapen-gorputzean: «Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatuta – NextGenerationEU».

2.- Informazio-kartel eta plaka guztiak ondo ikusteko moduan eta jendeak ikusteko moduan jarri beharko dira, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da.

D) Ingurumenaren arloko betebeharrak, DNSH printzipioa

Kontratistak bermatuko du ez diola kalterik egingo ingurumenari (DNSH printzipioa) eta, hala badagokio, etiketa klimatiko eta digitalari, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) aurreikusten denaren arabera, bai eta Kontseiluaren Exekuzio Erabakian (Espainiaren berreskuratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eskatzen denaren arabera ere.

Betebehar horiek guztiak kontratuaren funtsezko lege-betebeharrak dira, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Horrez gain, Gauzatzen diren jarduketek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa errespetatuko dute (do no significant harm - DNSH printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan (2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) eta hura garatzeko araudian xedatutakoa betez, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio horren aplikazioari buruzkoa, bai eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Espainiaren berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren dokumentu erantsian eskatutakoa ere.

Egiten diren jarduera guztietan, ingurumen-araudi nazionala eta EBkoa errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin-ebaluazio batzuk ere.

BEEPan jasotako egikaritze-neurriek ezin diete kalte esanguratsurik egin ingurumen-arloko sei helburuei:

CSV: 07E90013647900R1J7X2R8F9N5

1. Klima-aldaketa arintzea;
2. Klima-aldaketara moldatzea;
3. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa;
4. ekonomia zirkularrerantz trantsizioa egitea;
5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola;
6. biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzea.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek Europar Batasuneko eta Estatuko ingurumen- arloko araudia betetzen dela bermatuko dute, (2021/C58/01) Gida Teknikoko «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren (*do no significant harm*-DNSH printzipioa) arabera. Era berean, kontratu honen xede den jardueraren bat edo guztia azpikontratatuz gero, erakunde esleipendunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildotik.

